


Prentsa oharra

Nota de prensa



“DONOSTIAKO BERDEA”, HIRIKO PARKE ETA LORATEGIEI BURUZKO GIDA ATSEGINA

Argitalpen honek Donostiak dituen "altxor berdeei" buruzko informazio eguneratua eta praktikoa eman nahi du, edukiari, ondareari, aktibo naturalei eta horietako bakoitzean erabiltzeko aukerei buruzko datuekin.

Donostia, 2021eko uztailaren 9a.- Ekologia zinegotzigoak eta Cristina Enea Fundazioak gida-liburu bat argitaratu dute Donostiak dituen parke, lorategi eta hiri-mendi nagusiekin.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, "liburu praktiko batean jaso nahi izan ditugu donostiarrok ditugun altxor horiek, ez baititugu guztiz ezagutzen. Horren bidez, bertakoek eta bisitariak Donostiak duen aberastasun naturalaren ikuspegi osoa izan dezaten nahi dugu, informazio zehatzarekin, irudiekin, planoekin eta, batez ere, gure hiriak harro egoteko moduko parke eta lorategi sare zabala duelako benetako sentsazioarekin".

“Donostiako Berdea. Parke eta lorategien gidaliburua”, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez argitaratu dute. "Donostiako auzo guztietako parke, lorategi eta mendietako giroa eta sentsazioak transmititzen saiatu gara. Horietako bakoitza inguratzen duen atmosfera helarazi nahi diegu herritarrei", adierazi du Garmendiak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Gidaliburuak Alex Iturralde eta Xabier Ubedaren dozenaka argazki biltzen ditu modu atsegin eta hurbilean, eta deskribapenak eta ibilbideak irudikatzeaz gain, irakurketa errazteko osatu ere egiten dituzte. "Parke historikoak bezalako gune batzuk asko bisitatzeko dituzte herritarrek, beraz, informazio berria edo ezezaguna ematen saiatu gara argitalpenarekin. Beste batzuk ez dira hain ezagunak herritarrentzat, hori dela-eta, zer eskaintzen duten azaltzeaz gain, informazio praktikoa ematen dute bertara iristeko moduari buruz, zer garraio publiko har daitekeen, bizikletaz sar daitekeen eta aparkalekurik dagoen, edateko uraren iturriak dituen, irekitzeko eta ixteko ordutegiak, eta abar", adierazi du Cristina Enea Fundazioko zuzendari Txema Hernandezek.

Halaber, gidaliburuan hiriko hainbat lorategi eta pasealeku lotzen dituzten hamar ibilbide sartu dituzte, edo parke esanguratsuenen barruan egin daitezke, landareria, fauna, historia eta kultura-ondareari buruzko xehetasun asko ezagutzeko aukera emanez.

Sorpresa ederrak

Gidaliburua bereziki Donostiako herritarrei zuzenduta dago, baina, formatua eta edukia kontuan hartuta, argi dago interesgarria izango dela gune berdeez, ingurumenaz eta naturgunez berezko izaeraz gozatzen duen edonorentzat.

"Argitalpen zaindua izatea nahi izan dugu: diseinua, poltsikoko formatuduna izatea, testuak, argazkiak, paperaren eta erabilitako tinten kalitatea eta iraunkortasuna kontuan hartuz paperaren gehiegizko kontsumoa saihesteko... Atzeko hegala ere postal bat izatea nahi izan dugu, lagunei edo senideei bidaltzeko, Donostiako berdeguneak ezagutzera emanez", azpimarratu du Marisol Garmendia zinegotziak.

Lanak 10 euroko prezio sinbolikoa izango du eta Donostiako Turismo Bulegoetan erosi ahal izango du jendeak. Baita Cristina Enea parkearen sarrerako zaindariaren etxe zaharrean irekitako Donostiako parke eta lorategiei buruzko informazio gunean ere.

Informazio gune honek Donostiak dituen parke, lorategi eta naturguneak zabaltzen lagunduko du. Bulegoa irailaren 5era arte egongo da irekita ostegun eta ostiraletan 16:30etik 20:00etara, eta larunbat eta igandeetan, 11:30-14:00, 17:00-20:00.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Telefonoa: 943 45 35 26

Eposta: cristinaenea@donostia.eus